

Goierriarra

321. zenbakia 2007ko maiatzak 25

Iñaki Eskisabel

AULKITIK FUTBOLA HIZPIDE

BIZIRIK GABEKO KALEA



KALE BIZIA



Herria kalez osatua dago.
Kaleetan dandak kokatzen dira.
Dendetan hermitarrek erosketak egiten dituzte.
Erosketak dendetara, kaleetara eta herrira bizia dakar.
Herrian erosteak bizia dakar



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Gerra artean jaioak nonbait eta seta txarrez hezi herriarengan aurkeztutzeko nahiko tranpa ta malezi. Gobernatzeko kondiziotan gizon bat ezin berezi inork gehiago botatzerikan ez lukete hoiek merezi.

Ikusirikan gure gainetik horrenbeste arerio hau ez da txantxa, hartzekoa da arretaz eta serio. Batasunean izan ezikan gora ez gindezke io tamalgarri da erregu honek ez ote duen balio.

Hauteskundeak

Abertzaleen soka hautsi zen oraingo ezin lotuan askok sinesten ez dutelako istituzio kontuan; besteak berriz dena dagola diote Parlamentuan eta geroak esango digu gaur arrazoia nork duan.

Patxi Iraolak 1987an Argia astekariaren 1155. zenbakian 'Hauteskundeen ondorena' gaiarekin argitaratu zituen 14 bertsoko sortatik 3 ale.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:


Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

- 4. Iritzia:** Idurre Eskisabel.
- 6. Ingurugiro txokoa:** Supermerkatuak ez eskerrik asko: alternatibak badaude.
- 8. Euskara txukuntzen:** Batzuk, batzuek...
- 10. Aholkua:** Garapen psikomotorea.
- 12. Kate motzean:** Benito Aiestaran.
- 14. Erreportajea:** Bertsozaleen harri arteko txapelketa.
- 18. Elkarrizketa:** Iñaki Eskisabel, Beasain futbol taldeko entrenatzailea.
- 22. Elkarrizketa:** Idiazabaldarren urteroko bisita San Adriana.
- 28. Iragarki laburrak.**
- 30. Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Idurre Eskisabel

*Alfonso
Sastreren
emaztea edo
Pablo
Sastreren
amaren orde
z Eva Forest
izan da.*

Eva Forestez, amez eta iraultzaz

Ez daukat data zehatza esaterik, baina 1985. urtea izango zen. Beasaingo La Salleko zineman ikusi nuen Eva Forest aurrez aurre lehendabiziko aldiz. Mario Beneditteren Pedro eta Kapitaina torturen inguruko obra zirraragarria jokatuz Intxixu antzerki taldekoek, eta, ondoren, Eva Forestek eta beste batzuek hitzegin zuten torturaren aurka. Lekukotasun gogorrak, bortitzak, 15 urte eskaseko nerabe inozente samar hura dar-darka uzteko adinakoak, baina, bereziki Eva Foresten begirada irribarretsua geratu zait gogoan. Badakizue, memoriaren kapritxoa, hautaketa selektiboa, zenbaitetan izan ez dena izan denaren gainera jartze-ira iristen den zera hori.

Ordurako, etxean-eta entzunak nituen Eva Foresti buruzkoak: euskaldunokin bat egiteagatik espetxeratutako emakume katalana omen zen, seme-alaba txikien ama; haren umeak irudikatzen nituen ama kartzelatik noiz irtengo zain. Uste dut horregatik iltzatu zitzaidalako Eva Foresten izena memorian, nolabait beldurgarri egiten zitzaidalako ideia batzuen alde seme-alabengandik bereizteko prest zegoen ama eta emakume hura. Gogorra behar zuen aita espetxean izatea, baina ama... hori bai izugarria! Aitak, gizonak, beste zerbait ziren, haien egitekoa zen herria salbatzea, eta emakume/amena haiek itzuli zain etxea eta umeak gordetzea. Badakizue, "zain andre eta lagunak" kantatzen genuen. Akaso, horregatik harritu ninduen Eva Foresten begirada goxoak.

Gerora, lehenago beldurgarri zitzaidan arrazoi beragatik egin zait miresgarri Eva Forest: emakume, ama eta Alfonso Sastre

idazle handiaren emazte izatea ez zaiolako eragozpen gertatu pertsona autonomo izateko. Inoren itzalean ibili gabe txirikordatu duelako bere bizitza. Alfonso Sastreren emaztea edo Pablo Sastreren amaren orde z Eva Forest izan delako.

Joan den larunbatean hil zen. 79 urte zituen eta minbizia azkenaldian. Baina, hala ere, duela hilabete inguru hitzaldi batean parte hartu zuen Hondarribian, Alfonso Sastre senarrari buruzko jardunaldi batzuetan.

Eva Foresten heriotzaren harira duela 2 urte egindako elkarrizketa batean esandakoak bildu ditu Lorea Agirre beasaindarrak BERRIAN: "Iraultza diodanean guztiaz ari naiz: prozesu politiko, sozial eta pertsonalez. Pentsatzeko, sentitzeko eta erreakzionatzeko gai den gizakia izateko prozesu hori iraultza da". Aurrerago: "Tango baten txorakeria dirudi, baina bizitza maite dudalako egiten dut borroka, bizirik egoteko egiten dut borroka, eta bizirik egotea pentsatzea, komunikatzea, sentitzea da. Borroka egiten dut badakidalako iraultza posible dela. Ni dagoeneko oso zaharra naiz eta nahikoa ikusi dut jakiteko posible dela bizirik egotea. Bestela gizakiak ez luke esperantzarik izango. Eta, nahiz eta nik ikusi ez, egun batean, izango da, zeren gizakia hori da edo ez da gizakia".

Ez, ote da hori, funtsean, ama baten pentsamendua?

(Hau guztia irakurrita, garaiko mistikaren txatalekin ari naizela pentsa dezake norbaitek. Eta, beharbada, ez du arrazoi faltarik, baina hainbeste dira mistikak! Baita egungoak ere).

garenak X2
izateko

lortu ezazu **hitza**ren
harpidedun berri bat

eta **opari bana** jasoko duzue

aukeratu gustuko
duzun oparia*



*harpidedun berria maiatzaren 30a baino lehen ekartzen dutenentzat.

hitza

Goierritarra

BEZERO ARRETA ZENBAKIA: **902 820 201** astegunetan: 08:30 - 20:30
larunbatetan: 09:00 - 13:00

Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...



Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:

Lorategiko eta terrazako altzariak, kolore ezberdinetako aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
toldosagustin.com

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

LAZKAO

Supermerkatuak ez eskerrik asko: alternatibak badaude

Apirilean estatu mailako supermerkatuen aurkako kanpaina bat aurkeztu zen, bidezkoa ez den elikatze modelo hau salatuz. Kezkatzekoa da elikadura kate guztian jakien banatze enpresa handiek (JBEH) duten botere geroz eta handiagoa.

Datuen arabera, JBEHak kontsumitzaileek jakitera duten sarrera bakarrean bihurtzen ari dira eta baita ekoizleek kontsumitzaileentzako iristeko duten ate bakarrean. Espainiar estatuan biztanleen %81a JBEH-en bitartez elikatzen dira eta bost enpresa eta bi erosketa zentralak kontrolatzen dute jakien banatze guztia %75a.

Gaur egun jasaten ari garen "supermerkatuen iraultzak" eragin nabarmenak ditu jakien kate guztian. Ekoizleek salmentak mugatuak dituzte batez ere nori saldu eta zerbatean, baina baita kontsumitzaileek erosterako garaian ere. Kontsumitzaileok guretzako eta beste lurraldeentzako jasangaitza den elikatze modelo baten subjektuetan bihurtu gara, agente ekonomiko hauek soilik lortzen dituztelarik etekinak. Gaur egun JBEHek biltzen dute elikatze kate guztiaren etekin %60a. Banatze kate handiek beren salmentak handitzeko mito ezberdinak eraikitzen dituzte, prezio baxuagoak dituztela adibidez. Baina datu ofizialen arabera, eguneroko produktu asko denda tradizionalan baino garestiago saltzen dituzte.

Gainera, JBEHak familia nekazal ekoizpen ugari desagertzearen arduradun dira. Honez gain, egunero 11 denda tradizional ixtera behartzen dituzte. Bestalde, enpresa hauek ingurugiro garapen jasangaitzera garamatzate, ekoizpen modelo intentsibo eta industrializatua exijitzen dutelako, baita ekoizten diren jaki mota eta kantitateengatik eta hauen ekoizpenak eragiten dituen koste ekologikoengatik. Enpresa mota hauek estatu txiroetan ezartzen direnean, hauen nekazal krisia areagotu besterik ez dute egiten.

"Ez ezazu mundua jan" kanpaina

Goian aipaturikoa salatu eta aldatzeko beharrak sortu du "supermerkatuak ez, eskerrik asko" kanpaina. Ferran Garciak, "Ez ezazu mundua jan" kanpainaren koordinatzaileak, honakoa esaten du: "supermerkatura joaten naizenean, izokinak Chiletik datoz, oilaskoak Brasiletik, larrosak Colombiatik, ganbak Tailandiatik... Geroz eta gehiago, gure eros-

keta saskia inportaturiko produktuz betetzen da". Baina inportatzeko produktuak izateko esportatzeko ekoizpenak behar dira eta hauek, herri txiroetako monokultiboak gehienetan, ez dira dohain izaten: eragin kaltegarriak izaten dituzte nekazal gizarteetan eta baita planeta osoko ingurugiroan ere.

Honelako ekintzekin "mundua jaten ari gara". Kanpaina honekin adibidez Brasilgo soia eta bertako nekazari desjabetuen heriotzaren arteko erlazioa ezarri nahi da, edota arrain xerrak eta Afrikako Victoria lakuko pobrezia arteko erlazio zuzena. Monoekoizpen esportatzaileak pobrezia, goste eta ingurugiroaren kaltearen arrazoia dira. Lurralde txiroen garapen motore bezala saltzen dizkigute, baina errealitatean hauen arazo nagusienetarikoa bat dira. "Supermerkatuak" dira azken finean zer ekoiztu, nola, zenbat, nork, zein prezioan eta norentzat ezartzen dutenak.

Bidezko merkataritza
www.galeon.com/elkartruke

**Ingurugiro garapen jasangaitzera
garamatzate, ekoizpen modelo
intentsibo eta industrializatua
exijitzen dutelako, ekoizten diren
jaki mota eta kantitateengatik eta
ekoizpenak eragiten dituen koste
ekologikoengatik.**

JAKIN BEHARREKOAK

Palentzia trasgenikoetatik libre. Ekologista eta nekazariak txalotu egin dute Palentzia hiria genetikoki eraldatutako izakiaz libre deklaratu izana. Kanpaina honen helburua eskualdeko herri guztietan trasgenikoei uko egitea da.

Bioterra 2007 ekainak 1etik 3ra Irun (Gipuzkoa). Produktu ekologiko, bioerakuntza, energia berri-erakuntza eta kontsumo arduratsuen azoka ospatuko da. Informazio gehiago:
<http://bioterra.ficoba.org>

Abiadura handiko trenaren inguruko iritzien azterketa. Ikerketaren diseinua, zuzendaritza eta aholkularitza unibertsitateko irakasle eta ikerkuntza sozialean adituak parte hartu dute. Emaizta batzuk honako hauek dira:

- ✗ Lautik hiruk AHT inguruan informazio gutxi edo batere ez dutela diote.
 - ✗ %69 instituzioek eskaini duten informazioa ez dela nahikoa uste dute.
 - ✗ %35 ez dakite trenaren ibilbidea bere udalerritik pasatzen denik ere.
 - ✗ % 42 ez luke behin ere tren erabiliko eta % 34 urtean noiz edo noiz.
- Orokorrean gehiengoak informazio falta azaltzen dute aldeko edo aurkako erabakia hartzeko orduan

EAE



ANV

BOZKATU

**Goierrri
berria
ezkerretik**



Batzuk, batzuek...

Maizpide euskaltegia

Gizon batzuk egin dute ala gizon batzuek egin dute?

Biak al dira zuzenak euskara batuan? Bada, duela urte batzuk arte halaxe izan bazen ere, Euskaltzaindiak horren inguruko erabakia hartu zuenetik bigarrena baino ezin da ametitu.


Erreparatu ondorengo bi zutabeei:

Batzu	Batzuk
Batzuk	Batzuek
Batzuri	Batzuei
Batzuren	Batzuen
Batzurekin	Batzuekin
Batzurentzat	Batzuentzat
Batzuz	Batzuez
Batzutan	Batzuetan
Batzurengan	Batzuengan
Batzutako	Batzuetako
Batzurenganako	Batzuenganako
Batzutara	Batzuetara
Batzurengana	Batzuengana
Batzutaraino	Batzuetaraino
Batzurenganaino	Batzuenganaino
Batzutatik	Batzuetatik
Batzurengandik	Batzuengandik
Batzurengatik	Batzuengatik
Batzutarako	Batzuetarako

Orain arte bi zutabetako formak berdin-berdin erabili badituzu, jakin ezazu aurrerantzean bigarren zutabeak bakarrik hartu beharko dituzula aintzat.

- Horrela:
- ✓ **Gizon batzuk etorri dira** (eta ez *gizon batzu etorri dira).
- ✓ **Gizon batzuei gertatu zaie** (eta ez *gizon batzuri gertatu zaie).
- ✓ **Gizon batzuentzat ona da** (eta ez *gizon batzurentzat ona da).

Oilar batzuek **kikiriki** kantatzen dute; beste batzuek, **kokoriko...** eta nik: **kukurruku!***



* Gaintzako oilarrak esana!

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Batzutan ahaztu egiten zaigu pazientzia zer den.
2. Politikari batzuegan ez dut konfiantzarik.
3. Gauza batzutarako hobe da bi aldiz ez pentsatzea.
4. Epaile batzuen erabakiak harrigarriak izaten dira oso.
5. Hauteskunde-kanpaina batzutatik ezin da ondoriorik atera.
6. Zerrenda batzuk "kutsatuta" daudela esan du Conde Pumpidok.
7. Lapurreta batzurengatik atxilotu omen dute Ixabel Pantoja.
8. Agintari batzuegandik ezin da gauza handiegirik espero.

OHARRA: esaldi bakotikak gaitzki daude; bikotikak, ondo.

Iñasti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

AUSO EGI
ERREFORMAK

- ✘ Tximini eta ekonomikak
- ✘ Berogailuak
- ✘ Iturgintza
- ✘ Zeramika erakusketa
- ✘ Bainuko altzariak



A
N
D
A
M
I
O
R
I
K

G
A
B
E
K
O

L
A
N
A
K



680 641 401

676 952 968

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak

MULTIOPTICAS

Betaurreko progresiboak
isla-kontrako lenteekin **149 €**



Diseinuko betaurreko progresiboak

COOL bilduma, MultiOpticas-en eskusiban

Eskaintza hau 07/05/07tik 07/06/30era arte izango da. Cool, Cool + eta Fashion Pro markako armazoi selekzio bat eta 2 lente progresibo Multifoko E 1.5 AR Basic, zil: +2 esfera +4 -6ra; add: +3 hartzen ditu barne.

R.P.S. N° 190/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva, 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRENTERIA

Mendibil M.G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

Gizakia eta teknikan Oswald Spengler-ek dio gizakia iritsi den mailara iritsi bada bere eskuei esker izan dela.

Gizakiaren zerebroa hain modu harrigarrian gure arbasoen eskuen trebetasunari esker garatu ote zen ala alderantziz gertatu ote zen? Garbi dagoena hau da: gizakiaren zerebroa eta eskuak lotzen dituen nerbio sarea ikusgarria dela. Ikusmena eta eskuen arteko koordinazioak beraz, izugarrizko garrantzia du garapen psikomotorean. Koordinazio hau adimenaren garapenean funtsezkoa da.

Lehen zortzi astetan gure haurrak ia ezer ez du egingo eskuekin eta itxita edukiko ditu.

Bigarren hilabetean, eskuak lasaitu eta ireki egingo ditu. Haurrak etengabe aztertuko ditu, ahoratu egingo ditu eta gauzak hartzeko lehen saiakerak egingo ditu.

Une aproposa benetako jostailu eder bat haurrari emateko: txintxirrina (sonajero). Bere hots, itxura eta koloreengatik, estimulo iturri agortezina izango da une honetatik aurrera. Hartu, utzi, mugitu, miazkatu, hotsa atera, ... Txintxirrin desberdinak eskainiko dizkiogu haurra asper ez dadin.

Gure haurrak zerbait hartu nahi duenean, erronka berri bati egin behar dio aurre: distantziak kalkulatu behar du.

Lauzpabost hilabete dituen ohartuko gara, bere

*Garbi dagoena hau da:
gizakiaren zerebroa eta eskuak
lotzen dituen nerbio sarea
ikusgarria dela.*

esku eta besoen nolabaiteko kontrola baduela. Sei hilabeterekin gutxi gorabehera ez usteko berri bat eman-go digu: gauza bat esku batekin (ala biekin) hartzeko gai dela. Tresna hori lau behatzen eta esku-ahurraren artean edukiko du. Bi gauza batera hartzeko gaitasunik ez du oraindik eta eskuan duena uztea ere kosta egingo zaio. Eskuetan duena ahora eramango du. Eskuak, ikusmenak eta ahoak tresna desberdinei buruz informazioa ugari emango dizkiote eta zerebroak etengabe prozesatu egingo du.

Zortzi bat hilabete dituen, eskuetan tresna bat badu eta guk eskatzen badiogu, ematen saiatuko da. Ziurrenik ez du asmatuko: ez du uzten jakingo. Nolanahi ere trukaketak egiten hasi ahal izango dugu. Behatz lodia martxan hasten da. Eskuetako bat nagusitzen hasi da jadanik (halere oraindik goizegi da ezker ala eskuina den esateko).

Adin honetan hurrek asko disfrutatzen dute tresnak kaxatan sartuz, ondoren irauli, dena sakabanatu eta berriro kaxatan sartuz.

Kuboak pilatuz, dorreak egingo ditu eta gozamen handiz bota egingo ditu. Piezak bata bestearen barruan sartzea ere asko gustatuko zaio eta lan honek trebetasun maila handia eskatuko dio.

Haur bat, gauzak nahi bezala hartu eta utz ditzakeela ohartzen denean, etengabe jolas horretan hasten da, hartu bota, berriro hartu eta berriro bota.

Arte lanaren hastapenak

Bigarren urtebetetzea baino lehen, has gaitzke gure haurrarekin zenbait lan egiten. Errazenetik hasiko gara. Ura eta hondarra eskainiko dizkiogu bere lehen esperientziak egin ditzan. Bi urterekin buztina emango diogu eta hirurekin plastilina. Bere lan horiek merezi bezala gorai patuko ditugu eta leku esanguratsuak ipiniko ditugu gure adiskideei erakusteko. Koloretako arkatzak hiru urterekin eskainiko dizkiogu. Gure artista txikiak ondo pasatzeaz gain, bere adierazpena eta espresibitatea azalduko ditu eskuen trebetasuna lantzen ari den bitartean.



Andramendi
Beasaingo ikastolako
haurtzaindegia

Lazkaon,



egin behar dugu

Patxi Albisu Estensoro

Lazkaoko Alkatetzarako
hautagaia.



Beasainen,



egin behar dugu

Patxi Plazaola Muguruza

Beasaingo Alkatetzarako
hautagaia.

Olaberrian,



egin behar dugu

Agurtzane Arrieta Urdangarin

Olaberriako Alkatetzarako
hautagaia.



Legorretan,



egin behar dugu

Xabier Iraola Agirrezabala

Legorretako Alkatetzarako
hautagaia.

Ordizian,



egin behar dugu

Jose Miguel Santamaria Ezeiza

Ordiziako Alkatetzarako
hautagaia.





“Nire barruan nuen harrari erantzun diot Birzikla sortzean”

Zerk bultzatu zaitu, orain arteko lana utzi eta Birzikla sortzera?

Ez dakit kasu hauetan zer den konkretuki bultzatzen zaituena: abenturero izaera, ero puntu bat, edo... ziuerra da, ni bultzatu nauena, behintzat, nire barruan nuen harrari edo egonezinari erantzun bat ematea izan dela. Orain arte, Orklin lan egiten nuen, eta bertan oso gustura nengoen.

Halere, betidanik izan dut nire kasa zerbait jarri eta zortea probatu nahia; eta aukera ikusi dudanean ez naiz koldu. Zezenari adarretatik heldu, eta aurrera egitea erabaki dut. Etxean ere animatu egin naute.

Bezeroek nola erabil dezakete Birziklaren zerbitzua?

Birziklaren zerbitzuak bi dira nagusiki: 1) enpresetan, ikasketxeetan, udaletxeetan... edukiontziak jartzen ditugu kartutxoak bertara botatzeko, eta hilean behin edukiontzi horien bilketa egiten dugu. 2) kartutxoei eman beharreko tratamendua eman ondoren, salmentan jartzen ditugu, eta prezioa original bat baino %40-%50 merkeagoa izaten da. Beraz, ekonomikoki oso aukera interesgarria da edonorentzat, eta kalitatea erabatekoa da.

Zein izaten da birziklatze prozesua?

Kartutxoak birziklatzerakoan, bi prozesu erabat desberdin daude. Toner kartutxoak direnean, mekanikoki kartutxo guztia ireki, barruko piezeria oso-osorik aldatu eta berria jarri, toner-hautsez bete, eta berriro ere montatu eta kalitate kontrola egin ondoren, paketeetan sartu eta berriro ere saltzeko prest jartzen ditugu. Tintazkoetan, berriz, sekretua bere garbiketan datza. Erabat hustu, ondo garbitu, berriro ere tinta kantitate aproposarekin bete eta kalitatea kontrolatu ondoren, paketeetan sartu eta saltzeko prest jartzen ditugu.

Ingurumenari zer laguntza emango diozue zuen ekimenarekin?

Ingurumenari egiten zaion onura ikaragarria da. Pentsatzen jartzen bagara kartutxo hauetako bakoitza sortzeko beha-

rrizkoak diren ingenieritza ordu piloaz, eta petroleo litro kopuruaz, berehala konturatuko gara kartutxo hauek birrerabiltzeko beharraz (adibide gisa, toner kartutxoetako batzuk ekoizteko, 25-30 litro petroleo behar dira).

Goiekiren Ideia berritzaileen sariketa irabazi duzu. Zertan lagunduko dizu sariak?

Oso garrantzitsua da sari hau ni bezalako ekintzaile berri batentzat. Goiekik proiektu honetan sinetsi egin duela esan nahi du, horrek ematen dion babes eta seriotasunarekin.

Zertan lagunduko didan erantzuterakoan, berriz, nagusiki Goierriko bailara guztian nire proiektua ezagutarazten lagunduko didala esango nuke.

Lan berriak uzten al dizu mendirako tarterik?

Aspaldi honetan ez dut mendirako tarte handiegirik hartu. Ez dut uste lan berriaren aitzakia denik, baina momentu bakoitzean norberak jartzen ditu bere lehentasunak, eta nire mendirako zaletasuna ezerk zapuztuko ez badu ere, orain nire lehentasunak beste bide bat darama.

Igo duzun mendirik politena?

Ez nuke jakingo galdera horri erantzuten. Mendi politik asko dira... Urrutira joan beharrik ez dago, Txindoki bera edo Aralarko edozein paraje polit askoak dira.

Zaletasun bat:

Mendi-buelta bat, edo txirrinduan.. Bazkari eder baten ondorengo tertulia ere asko gustatzen zait.

Zerk sortzen dizu negarra?

Injustiziak.

Eta barrea?

Gure alabek.

Beasaingo alkate izango bazina...

Beasaindarrengandik gertu egoten saiatuko nintzateke, gazteengan arreta berezia jarriaz.

Amets bat:

Oraintxe bezala bizitzen jarraitzea, eta pertsonalki naiz profesionalki ditudan proiektuak ondo ateratzea.

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913

BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA

Loinazko San Martin plaza z/g. Tel: 943 028105

MATRIKULA EPEA:


Ikasle berriak: maiatzaren 23tik ekainaren 8ra
ORDUTEGIA:
astelehenetik asteazkenera,
9:30-13:30 eta 16:00-19:00
ostegun eta ostiralean, 9:30-13:30

Musika Talde partaidetza:

Banda, "conbo", pop, rock, akordeoi orkestra, harizko orkestra, abesbatza, txistulari-banda, trikitixa taldea, perkusio taldea...

Prestakuntza musikala:

Kantua, biolina, gitarra, gitarra elektrikoa, saxofoia, klarineta, tronpeta, trabeskako flauta, txistua, dultzaina, akordeoia, pianoa, teklatuak, trikitixa, panderoa, perkusioa, bateria, musika lengoia, harmonia, informatika musikala, musika historia, musika analisisa, ikastaro bereziak



Goierritarra



goierriko

hitza

Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

Goierritarra 25 euro Egin bat aukeratutako kaxan **hitza** 62,5 euro

Goierritarra + **hitza** 67,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**



Bertsozaleen herri arteko txapelketa

7 herri arituko dira lehian ekainaren 8tik aurrera

Goierriko Bertso Eskolaren 25. urteurrenaren aitzakian antolatu den Atera! inprobisazioaren jaialdiaren barruan, Herri arteko taldekako txapelketa jokatu da, ekainaren 8an ha-

sita. Zazpi herrik eta taldek, dagoeneko ziurtatu dute partehartzea (Ataun, Beasain, Gabiria, Legorreta, Ordizia eta Zegama), zortzigarrena, Segura, zalantzan zegoen lerro hauek idazterako garaian.

URRATS AKADEMIA
IRAKASKUNTZA ETA PEDAGOGIA ARLOKO ZERBITZUAK

Ingenieritzako gaietan adituak
Erdi eta goi mailako zikloak
Batxilergoa eta DBH
Eskola laguntza indibiduala

Urbialde, 7 - BEASAIN - Tel.: 670 562 800

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN


Irailan beteko ditu 25 urte Goierriko Bertso Eskolak eta zilarrezko ezteien ospakizunaren barruan, hiru hilabete iraungo dituen 'Atera!' jaialdia antolatu du Goierriko Bertso Eskolak. Ekitaldi horietako bat, bertsozaleen herri arteko taldekako txapelketa izango da. Inprobisazioa kaleratzea du helburu txapelketak, eta bertsolari amauterrek izango dute bertan parte hartzeko aukera. "Bai bertsozaleak eta baita bertsoaren inguruan sekula ibili ez direnak ere animatzea dugu helburu", dio Iñaki Apalategi antolatzailerak.

Momentuz, zazpi taldek edo herrik eman dute izena txapelketan: Atzun, Beasain, Gabiria, Idiazabal, Legorreta, Ordizia eta Zegama. Seguraren partehatzea, zalantzan dago oraindik ere. Ekainaren 8an kanporaketak hasi eta uztailearen 27an burutuko da finala, Ordiziako festekin batera, Ordiziako tximista sagardotegian.

Bertso-afarien bueltan jokatu da txapelketa. "Helburua denek parte hartzea eta ibilitakoek plazan aritzeko beharbada ez dute arazorik izango baina inoiz ibili gabekoek bai, ezetz esango dizu. Beraz, bertso tailerretako giro goxo hori lortu nahi dugu".

Talde ezberdinak

Gutxienez hiru laguneko taldeak izatea eta plazetan ez dabiltzanak izatea dira Herriarteko bertsozale txapelketan parte hartzeko baldintzak. Oso talde ezberdinak osatu dira Iñaki Apalategi adierazi digunez: "batzuk parrandan egiten dute bertsoan, beste batzuek, doinurik ere ez zekiten, beste batzuk aritutakoak dira... Ordizian eta Beasainen, Gazteteetako bertso tailerretatik ateratako taldeak dira. Beste batzuk, lagun taldetik atera dute taldea. 18 urteko neska batek eta 60



Atera!

Inprobisazioa izango da Atera! Jaialdiaren zutabea. Maiztetik uztaileara bitartean, ekimen ugariaren bitartez kalera aterako dituzte inprobisazioaren baloreak. Hori bai, "betiko eskemetatik atera. Inprobisazioa sozializatzea da helburua. Jendeak barruan duen ateratzea nahi dugu; hortik izena: jendeak lotsa galtzea eta barruan zer duen erakustea nahi dugu", zehaztu dute antolatzailerak.

Jarraian duzue prestatutako egitaraua:

Maiatzak 27: 'Zpeiz mukaki' kale animazioa, Beasainen.

Maiatzaren 9tik ekainaren 13ra, asteazkenetan, Goierri telebistako lehiaketa.

Ekainak 17: Telebistako lehiaketaren finala, Beasaingo Usurbe Antzokian. Jendea irekia.

Ekainaren 8, 15, 22, 29 eta uztailearen 6 eta 13an, herri arteko txapelketa.

Ekainaren 8tik 16ra, Ordizian, 'Hitzak Egin Gaitu Ezer' erakusketa.

Uztailak 27: 'Zpeiz mukaki' kale animazioa, Ordizian.

Uztailak 27: Herri arteko txapelketaren finala, Ordiziako Tximista sagardotegian.

Irailaren 4. astean, Goierriko Bertso-eskolari buruzko liburuaren aurkezpena.

urteko aitona bat talde berean arituko dira. Hori oso aberatsa iruditzen zaigu".

Parte hartzea bultzatu nahi dute txapelketarekin eta lan errazak jartzekotan dira. "Lanak oso oinarritzakoak izango dira hasierako kanporaketetan. Taldean egiteko aukera ere emango da. Lan batzuk prestatuta eramateko aukera ere bai... Zailtzen joango dira ariketak txapelketa aurrera doan

eran", zehaztu du Apalategi. Taldekideen artean, gainera, lanak banatzeko aukera ere izango dute. "Lanak zailena, bertsoan erretzen egiten duenak har dezake, eta besteak bertso bana bota... Jakina, puntuazioa emateko garaian, lana nola banatzen den ere baloratu da", gaineratu du.

Txapela eta bidaiatxoak izango dute saritzat irabazleek.

"Atera! jaialdi guztiaren helburua da, inprobisazioa kalera ateratzea da. Erakustea, edozein dela gai horrelako lan bat egiteko; pauso hori eman daitekeela", gehitu du Iñaki Apalategi.

Maila neurketa

Bertsozaleak kantuan jarri eta herrietan bertso lehia eta giroa piztearekin batera, beste helburu bat ere badu txapelketa honek, Iñaki Apalategi Beasaingo bertsolariak azpimarratu duenez: "bertsolaritza maila neurtzea, hau da, elitezko bertsolariaren maila baino, herri bertsolarien maila atera nahi dugu kalera. Bestetik, herrien arteko lotura sortu edo sendotzea. Hau da, indar neurketa bat ere egitea bada helburua: guk ikusten dugulako bertsolaritza maila ez dela neurtzen, Goierri, zenbat finalista egon diren historian, zenbat Gipuzkoako txapelketako finalista egongo diren aurretik, zenbat Lazkao Txiki atera diren kontatzea. Lazkao fama handia du Lazkao Txikigatik, baina egia da, Lazkaora joanez gero, puntu bati erantzuteko gai den jende askorik ez dugula aurkituko. Guretzat interesgarriagoa da, ehun lagun hartu eta horietako bat finalista izatea baino, ehunetik 30 maila bajuagoan, lau errima esateko gai izatea. Medikuntzarekin alderatzen dugu: Espainiako medikuntza maila ez da neurtzen zenbat Nobel sari dauzen ikusita, baizik eta norbaitek bihotzeko bat izanez gero, zenbat medikuk kaso egiteko gai diren".

Bertsozaleen edo bertsolari amateurren sarea ere osatu nahi dute antolatzailerak. "Badago jendea elkar ezagutzen ez dutena edo elkar ezagututa ere, bertsoan egiteko gai direla ez dakitenak. Saretxo bat sortzea ere bada helburua, elkarren artean zerbait egin nahi badute ere", dio Apalategi.

Bertsozaleak kantuan

Emaitzak neurtzeko goizegi bada ere, "ondorioak uzten ari den txapelketa da", Iñaki Apalategik azpimarratu duenez. Esate baterako, bertso doinurik ez zekitenak, bertso-tan jarriko ditu herri arteko txapelketak.

Ekainaren 8an hasiko da lehia. Hortik aurrera, uztailearen 27ra bitartean, kanporaketak jokatu eta bi taldek izango dute finala jokatzeko aukera.

Ondorengo bi orriotan, herri bakoitzeko taldeen argazkiak sartzen saiatu gara, protagonisten izen-abizekin. Guztiak lortzea ez da posible izan baina gehienak hortxe daukazue. Segurarrak oraindik ere partehartzea ziurtatzeko dutenez, nahiago izan dute ez atera.

Batzuk serio-serio entrenatzen harrapatu ditugu; beste batzuk, oraindik hasi gabe omen daude. Dena den, guztiek, ilusioa badutela garbi utzi dute.

Aurrera begira

Aurten hasiko den txapelketak aurrera begira jarraipenik izango ote duen galdetu diogu Iñaki Apalategiri. "Momentuz aurtengoa bakarrik izango da. Aurtengoak arrakasta baldin badu eta taldeak zerbait antolatzeko gai baldin badira, ikusiko dugu", erantzun digu.



Ataun

Oier Zurutuzak, Haitz Aierbek eta Asier Gonzalezek osatuko dute Ataungo taldea. Argazkian ateratzeko Oier bakarrik animatu bada ere.



Beasain

Beasaingo Gaztetxean bertso tailerra eginduten gazteek parte hartuko dute Goierriko txapelketan.



Gabiria

Mikel Asurabarrena, Jokin Murua, Endika Igarzabal eta Gorka Maiz.

ARRIETA

JATETXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02

OLABERRIA



Idiazabal

Ion Telleria, Markel Lizarralde eta Gorka Araiztegi.



Legorreta

Jon Lasa, Ibai Uribe eta Odei Lopez.



Ordizia

Ordizian ere Gaztetzeko bertso tailerreko partaideak animatu dira Goierriko txapelketan parte hartzera.



Zegama

Joseba Albizu, Ander Ormazabal eta Jon Arakama.

PSIKOLOGI KLINIKOA		Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
	Jose Ramon Pato Prieto Psikologian lizentziatua Elkargokide zenbakia: E-2644 RPS: 420/01	
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN		

	ARANDIA Garajea	N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA
	LADA Ssang Yong	AUTOEN KONPONKETA

Iñaki Eskisabel

*Beasain futbol taldeko
entrenatzailea*



Denboraldia amaitzeko bi partidu falta zirela egin genion elkarrizketa Iñaki Eskisabeli, Beasain futbol taldeko entrenatzaileari. Iragarpenak bete eta 3. mailatik 2. B mailara igotzeko lehian

sartu du taldea olaberritarrek. Reala Athleticengandik puntu batera jarriko zela ere asmatu du Euskadi Irratiko futbol iritzi-emaleak. Beasain taldeari eta euskal futbolari errepasoa egin dio lerrootan.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA
MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Zein balorazio egiten duzu denboraldiaz?

Denboraldi bukaeran gertatzen dena gertatuta, denboraldi oso ona egin dugu. Aurtengo denboraldian, taldean aldaketa asko egon dira: taldearen %70 berritu egin dugu, jende berria da eta horrek denbora eramaten du talde lan bat lortzeko. Baina uste baino hobeto aritu gara, eta goian sartu gara, play off postuen inguruan sartu gara. Ez dakit zer gertatuko den, baina gertatzen dena gertatuta, denboraldi oso ona egin dugula esango nuke.

Talde berria izanda, ondo egokitu dira beraz.

Hemen garrantzitsuena eguneroko lana da eta oso lan ona egin dugu. Lehengo taldeak ilusioa falta zuen eta aldaketa handia hortik etorri da. Ilusioa daukan jendea, maila horretan, oso garrantzitsua da. Azkenean taldean aldaketa egin zen, lehengo urteko zazpi jokalarari gelditu ziren, taldea dinamika txar batetik zetorren lehengo urtetik, eta aldaketa horrek, oso errendimendu ona eman du. Emaizetan, taldea goian sartu da, nik hasieran uste nuen baino hobeto. Azkeneko bi partidu falta zaizkigu, San Pedro eta Amorobieta, eta igoerako play off horretan sartuta gaude.

Play off-etan sartzeko aukerarik ikusten al duzu?

Momentu honetan bai. Matematikoki, fase hori jokatzeke, partidu bat irabazi behar dugu, 3 puntu behar ditugu. Bi partidu eta sei puntu daude jokoan, beraz, partidu bat irabaztea izango litzateke kontua. Nik uste dut aste honetako partidua oso-oso garrantzitsua dela, azkeneko partidurako uzten badugu arriskutsua izan daiteke: etxetik kanpoan da, Amorobietaren aurka, gure helburu berdinak dituen taldea da...

Herrian festak bete-betean dituzuela jokatu du-

Jokalaritik entrenatzaileera

Duela 17 urte, 1990. urtean, iritsi zen Iñaki Eskisabel Beasain futbol taldera, 23 urterekin. Zelai erdiko jokalaria zen olaberritarra. Duela 7 urte utzi zuen futbola eta entrenatzaile agiria atera eta beti futbol munduan jarraitu izan du, poliki-poliki mailaz igoz. Lehenengo jubeniletan, Lazkaon eta Alegin, gero Hernanin, Zumarragan, eta aurtentzen, Beasainen ibili da. Azken bi denboraldietan, emaitza onak lortu ditu bere taldeekin.

Emaitza onak lekuko, mailaz goraxeago igotzeko aukerarik ba al duzu?

Nik ez dut hori pentsatzen. Nik CAFen lan egiten dut eta garbi daukat nire ogibidea momentu honetan trenaren gurruplak egitea dela. Inoiz ez da jakiten. Jendea egoten da horretarako mugitzen dena. Zortea ere behar da, baina horretatik bizi ahal izateko, mugitu egin behar da, Granada aldera edo... Hemen gertatu liteke baina saltoa jartzeko bi-hiru-lau urtean, abentura pixka bat egin behar duzu. Eta nik beti esan dut, gazteagotan amaren ondoan gustura egoten nintzen, eta orain etxean ere bai. Jokalari nintzenez ere ez eh! Aukeraren bat edo beste izan zitekeen baina etxeko garban-tzuek asko balio izaten dute. Momentu honetan entrenatzaile bezala ez daukat inongo ideiarik buruan. Ez du ematen, baina azkenean orduak eramaten ditu honek, gauzak ondo egin ahal izateko. Baina gustatzen zaigulako hemen, inork ez digu behartzen. Eta gustura.

zue partidua. Jende gehixeago hurbilduko ote da?

Ea ba gehixeago mugitzen den. Alde horretatik, futbola, beheko mailatan, asko jaitsi da, bai Beasainen eta bai leku guztietan. Espero dezagun, festen usain horrekin eta partidua oso garrantzitsua izanik, jende gehixeago hurbiltzea. Eta emaitza on batekin, ea dena festan bukatzen den.

Iaz, Urola taldea mailaz igotzea lortu zenuen, aurtentzen Beasain play off postuetan sartu da. Bolada onean zaude.

Egia da. Nik maila horretako futboleantzen urte asko daramazkit. Lehengo urtean,


beste era batera, beheko maila batean aritu nintzen, Lehenengo Regionalean, eta futboleantzen denetik harra-patzen da, urte txarrak ere izaten dira baina egia esanda, bi urteak onak izan dira. Iaz Urolarekin, lehenengo Regionaletik Preferentera igotzea lortu genuen, eta aurtentzen berriz Beasain etorri, lehen ere bi urte egin nituen, eta zorionez urte ona izan da. Denontzat ere hobe izaten da. Entrenatzeke ere erraztu egiten da dena. Taldea ondo sailkatuta dagoenean, gauzak errazago egiten dira, jendeak ilusio gehiago edukitzen du eta bata bestea ekartzen du.

Entrenatzaileak zenbaterainoko zerikusia dauka emaitza on horietan?

Nik beti esaten dut, %80-eko portzentajeantzen, jokalarientzen lana izaten dela. Egia da alderantzizko egoera batean dagoenean talde bat, aurrenekoa joaten dena entrenatzailea dela, jokalarientzen ez dira joaten. Entrenatzaileak zerikusia badauka, baina era guztietara, azkenean protagonistak eta taldea aurrera ateratzen dutenak, normalean, jokalarientzen dira.

Hurrengo denboraldian Beasainen jarraituko al duzu?

Ikusiko dugu. Momentu honetan urtebeteko kontratua



Zubieta aldera dezente joaten zarela aipatu duzu. Aukerarik izango al zenuke posturen bat izateko?

Beti esan izan dut kanpora joan eta futboletik bizitzeko asmorik ez nuela, baina Zubietara niretzat ez da kanpoa. Horrelako talde baten organigraman sartzea denei gustatzen zaie. Alde horretatik ez dut planteatu baina leku on bat izango litzateke. Beasainen gustura nago, instalazio onak daude, pentsa Zubietan. Beti da ametsa. Jokalari bezala ere bai; ez zen posible izan eta entrenatzaile bezala ere zaila da. Entrenatzaile guztiei gustatuko litzatekeen lekua izango da. Gora iritsi baino lehenago, oinarriko lana egoten da. Momentu honetan ez dago inongo aukerarik.

daukat eta denboraldia bukatu arte ez da momentua hurrengo urtean pentsatzeko. Egia da ni hemen oso gustura nagoela, lehenago ere urte asko egin ditut futboleant, eta lana egiteko lasaitasuna dago eta oso gustura nago. Orain instalazio aldetik ondo dago. Futbol-zelai bat, ona esango genuke, entrenatzeko beste bat ondoan. Lana egiteko oso leku aproposa da.

Futbol-zelai berria dauka Beasainek. Jendearen berotasuna gehiago nabaritzen al da?

Hemengo kasuan eta orokorrean, futbol-zelai guztietan, esango genuke sailkapenak ez daukala zerikusirik. Azkenean jende berdina etortzen da. Nik hemen jokalaria bezala urte asko eman ditut, urte txarrak, urte onak eta azkenean jende berdina etortzen da. Gaur egun futbol profesionalak asko jan du. Mantentzen den jendea, portzentaje altu batean, adinekoak dira. Futbol afizionatua asko jaitsi da. Beherakada honek urte batzuk badaramazki. Telebistak ere min dezente egin dio.

Taldean herritar bakarra izateak eraginik ba al du jendea futbol-zelaira inguratzerakoan?

Beharbada bai. Urtzi Arrondo bakarrik da beasaindarrak. Orain dela gutxira arte, inguruko jende gehiago egon da. Jendea badago, eta errespetatzekoa da, etxeko jokalaria ez ikustekotan joatea merezi ez duela pentsatzen duena. Baina ez dut uste arrazoirik nagusia denik futbola jaisteko. Inguruko herrietara joaten baldin bagara, Ordizia, Idiazabal, Segura... %90ak inguruko jokalaria dira. Nik partidua asko ikusten ditut, baina beti jende berdina joaten da. Arrazoi nagusia ez da hori.

Beasaingo jokalaria zinean, beste giro bat zegoen orduan.



Aurten espero dezagun, nahiz eta zaila egon, mailari eustea eta hortik buelta ematea: lehengo baloreetara itzultzea. Bestela Reala noraezean dago.

Bai. 7 urte dira nik futbola utzi nuela eta utzi nuenerako, futbola asko zegoen jaitzita. Nik Beasainen denetarik urteak ezagutu izan ditut.

Beasaingo entrenatzaile izateaz gain, Euskadi Irratien futboleko iritzia emale bezala aritzen zara. Erraza al da beste entrenatzaileen lana epaitzea edo iritzia ematea?

Normalean, gu busti ere, justu egiten gara. Hemengo taldeen partiduetan egoten gara komentaria bezala eta egia esanda ez dira urte-

rik onenak. Askotan ez da erraza izaten entrenatzaileen lana epaitzea. Pentsatzen den guztia ez da esaten, ezin da esan, ez da komeni. Azkeneko urteetan txarra ona baino gehiago nola izan den, askotan ezjakina egin eta pasa egin behar.

Entrenatzaile lana aipatu duzuenek, eta batzuk horrelakorik esaten ez badute ere, Realeko Lotinaren lana oso ona iruditu zait. Lan ikaragarria egin du. Protagonistak futbolariak izaten dira eta entrenatzaileak ez du miraririk egiten. Baina

Zubietara askotan joaten naiz entrenamenduak ikustera eta nik uste dut oso lan ona egiten duela eta Lotina oso entrenatzaile ona dela.

Realak aipatu duzenez, arazoa zer dira orduan jokalariai?

Dudarik gabe, jokalariai. Realaren kasuan oraindik garbiagoa da. Traiektoria bat dago, azkeneko urteak hartzen baldin baditugu Realaren lana oso kaskarra da eta jokalariai oso justu dabilta.

Beste gauza bat ere esan behar da: Realak nortasuna galdu du. Realak, gauza batengatik edo besteagatik, lekua uzten joan da. Lehengo baloreetara itzuli behar da. Hala ere urte onenak, etxeko jokalariai oinarri bezala hartuta egin ditu eta gauza batzuegatik edo besteengatik, nortasuna galdu egin du. Nik uste dut momentu honetan atzerritar ikaragarri dagoela eta askok maila ematen ez dutenak. Aurten espero dezagun, nahiz eta zaila egon, mailari eustea eta hortik buelta ematea: lehengo baloreetara itzultzea. Bestela Reala noraezean dago.

Araza handiena jokalariai da, zuzendaritzatik azken urteetan ez direlako gauzak ondo egin. Dena nahasten da.

Garbi dagoena da, taldea azken urteetan oso justua dela. Konpetibitate oso gutxi dauka. Azkeneko urteak hartzen baditugu, urteak daramazkigu zintzilika. Hori ez da kasualitatea.

Beasainen bezala, garbiketa handia egin behar al da Realean ere?

Niri baietz iruditzen zait. Kanpokoan aldetik bai. Etxeko jokalariai ere badaude itzuli egin behar direnak. Azkeneko urteotan, larrialdiko momentuetan, kanpotik jokalariai asko ekarri dituzte. Nik uste dut aztertutik beharra dagoela. Kanpokoak aipatu ditut baina etxean ere badaude jokalariai

justuak. Pixkanaka-pixkanaka garbitu egin behar dira. Beheko mailetan nik uste dut badaudela jokalariaik, aukera emanez gero, maila eman dezaketeenak eta hori egin behar da pixkanaka. Atzerritarrak, hiru edo lau, gehienez.

Bigarren Mailara jaitsi, bigarren taldeko jokalariaik hezi eta berriz ere indartsu iritsi Lehenengo Mailara...

Argumentu hori ahoz aho dabil. Izan liteke. Baina gertatzen dena da, Bigarren Mailara talde bat jaisten baldin bada eta galera ekonomikoak ikaragarriak dira eta. Ekonomikoki taldeak ez dauka zerikusirik eta gauza asko hautsi behar dira.

Bestetik, Bigarren Maila gogorra da eh? Behera jaitsi eta igo pentsatzen du jendeak baina Bigarren Maila gogorra da. Zaila da berriz igoztea. Beharbada soluzioa izan liteke baina hobe ez probatzea.

Urte asko dira Lehenengo Mailan zintzilika, eta jendeak segurutzat ematen du jaitsi egingo dela, baina momentua iristen denean, eta hobe ez bada iristen, zartakoa handia izango da. Urte asko dira Lehenengo Mailan.

Realaz bakarrik ari gara hizketan baina Athletic ere hortxe dago zintzilik.

Athletic-ek beste politika bat darama. Egia esanda, hasiera batean, gehiago gustatzen zait. Talde bezala, Athletic-ek abantaila bat dauka momentu honetan: Realak baino 4 puntu gehiago dauzkala. Baina Nastic kenduta, momentu honetan, aurtengo talderik okerrera dela esango nuke. Goitik behera da-

torrena gainera, eta Athletic oso-oso gaizki ikusten dut. Azkeneko partiduetan gainera dezente ikusi dut eta astetik atera okerrago dabil. Ez dakit nola bukatuko duen.

Athletic-i gertatzen zaiena da, azkeneko urteotan, harrobitik behar baino futbolari gutxiago ateratzen dituela eta atzerritarrik gabe mantentzea urtetik urtera zailagoa dela. Urte onak izan dituzte baina urtetik urtera ikusten da gero zailtasun gehiago dutela Lehenengo Mailari eusteko.

Reala edo Athletic, bakarren bat Bigarren mailara jaitsiko al da?

Ez nuke nahi, baina... Nastic seguru dago Bigarren Mailan, Celta ere hala esango nuke, eta bestea, bietako bat izango da. Levante talde kaskarra izan da baina puntuak atera dela eta zulo handi samarra egin du. Egunkariak begiratu eta beste talderen baten bila aritzen naiz baina ez dut ikusten. Gogorra izango da, baina momentu honetan ez dut beste talderik ikusten.

Realak Osasunaren aurka ere jokatu behar du... Berra ere ez dabil bikain.

Ez zait iruditzen Osasuna jaitsiko denik; ezinezkoa ez da, baina uste dut libre dagoela.

Nork irabaziko du Liga?

Nik nahi ez dudanak irabaziko duela uste dut: Real Madriderik. Urte guztian aritu naiz esaten, Bartzelonak erraz irabaziko zuela Liga, baina azkeneko emaitzak ikusita eta taldea nola dagoen ikusita, oso gaizki ikusten dut. Talde bezala ikusten dut gaizki, gauza asko nahastuta daude.

Di-da

Zer da futbola zuretzat?

Hasiera batean, kirol bat, baina kirolek aparte, jende askorentzat pasioa bihurtu da. Leku askotan, ez dut orokortu nahi, baina futboletik gutxiena gustatzen zaidana, jendea da. Futbola asko gustatzen zait eta itsua naiz, baina zenbait futbol-zelaitan, jendeak duen portaera ez zait batere gustatzen.

Talde bat:

Reala.

Entrenatzaile bat:

Hemen inguruan garai bat markatu duena Toshack izan zen. Orain, hengoetan gehiena gustatzen zaidana, Lotina da.

Jokalaria bat:

Maradona.

Futbol-zelai bat:

Atotxa izan da beti gustatu izan zaidan futbol-zelai bat. Azkeneko urteetan, zerbait bota badut faltan, Atotxako berotasuna izan da. Talde bat gaizki dagoenean, miraririk ez dago, baina nik uste dut denboraldi bukaeran, giro eta presio horrek puntuak ematen dituela. Hori San Mamesen ikusten da.

Futbola ez den kirol bat:

Txirrindularitza eta pilota.

Zaletasun bat:

Mendira joatea, nahi baino gutxiago joaten naiz baina...

Amets bat:

Futboletik bizitzeko gai izatea. Talde handi bateko entrenatzaile izatea. Baina hori oso zaila da daramakidan bizi-moduagatik eta profesionalki beste lan bat egiten dudalako, eta futbola hobbya da.

Herri bat:

Olaberria.

Nori aterako zenioke txartel gorria?

Realari aldaketa eman dion zuzendaritzari. Zein den esatea ez da erraza, urte bat baino gehiagoko gauza da, eta nik uste dut Realean horretan eta gauza gehiagotan zerikusi handia izan zuela Astiazaran presidente izan zen garai hark. Oso garai txarrak izan ziren Realarentzat. Momentu horretan Astiazaran zenez presidente, berari aterako nioke txartel gorria.



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN S.L.
Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Maitere Mujika eta Inaxio Mari Eziolaza

Idiazabaldarren urteroko bisita San Adriana

Ekainaren 3an, mendez mende egin izan duten bezala, San Adriango prozesioa egingo dute idiazabaldarrek. Goizeko 7ak aldean atera, San Adriango ermitan meza entzun, Sancti Spiritun hamaiketakoa eta itzuleran, Zegaman eta Seguran geldialdia egon ondoren,

ordu biak aldera iritsiko dira herrira. Herritar ugarik egingo duten ibilbidea izango da, tartean, Maritere Mujikak eta Inaxio Mari Eziolazak. Urteak ez dira alperrik pasa eta aldaketa ugari izan ditu usadio zahar honek. Mujikaren eta Eziolazaren testigantza jaso dugu ondorengo lerrootan.

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Urteetan eta urteetan, idiazabaldarrek tinko eutsi diote, San Adriango prozesioari. Ohitura zaharra hau noiztik datorren eta bere esanahia zein den zehatz ez badakigu ere, aditu batzuen arabera, herria fundatu zeneko garaietatik (1615 urtetik) edo beharbada lehenagotik datorren usadioa da. Erromeria-prozesio hau, "Aizkorri mendiko Partzoneriako larreak erabiltzeko eskubidea gorde nahiz egiten dute", Luis Peña Santiagok Elkar argitaletxearen 'Aizkorri' liburuan dioenez.

Joan diren 50 urteetan, hutsik egin gabe, Inaxio Mari Ezizolazak parte hartu du erromeria-prozesioan. "Ni kinto gaztea izan nintzen, 18 urterekin soldadu joan nintzen-eta. Urte hartan bertan kintoa nintzen. Handik atzera beti joan izan naiz".

1965ean, berrikuntza nabarmena izan zuen San Adriango prozesioak: lehenengo aldiz, emakumezkoek ere ohitura zahar horretako partaide izan baitziren.

Emakume horietariko bat eta harrezkerotik hutsik egin ez duena, Maitere Mujika izan da. "1965ean Don Bernabe apaiza zegoen orduan eta hark esan zigun zergatik ez ginen joaten San Adriana, begira ibili zela, eta inongo dokumentutan ez zuela jartzen emakumeak joatea debekatzen zuenik. Udaletxean ere ikusi genuen ez zegoela inolako eragozpenik", gogoratzen du idiazabaldarrak. "Lehen gizonezkoak bakarrik joaten ginen, baina ezin ginen ailegatu, 12-14 hor ibiltzen ginen, ia inor ez, eta lotsagarri gelditzen ginen herri horietan pasatzeko. Gero emakumeei libre utzi zien. Horrela eutsi zitzaion ohiturari", gaineratu du Inaxio Marik.

Hori bai, San Adriango prozesioan parte hartzeko adin muga zegoen: "exijitzen zen gutxienez 21 urte, kinto edadea izatea. Emakumeetan gehiena lan egin zuena kanpoan gelditu omen zen, 20 urte zituelako", zehaztu du Maritere Mujikak.



Maitere Mujika eta Inaxio Mari Ezizolaza

Boikota

Prozesioan parte hartzen zuten hainbat gizonezkoek ez zuten batere begi onez ikusi, emakumeen parte hartzea. "Joan ginen, eta autobusean, sekulako sorpre-

sa desatsegina izan zen emakumeak agertzea gizon artean. Hurrengo urtean, boikota egin zuten gizonezko batzuk. Urte hartan 13 bat lagun joango ginen, igual, neskak gehiago joango ginen gizonezkoak baino. Handik aurrera, jendeak ere lan egiten zuen fabrikatan, eta erabaki zen igandetan egitea. Orduan pakeak egin ziren".

1967an beste aldaketa bat ere izan zuen egun honetako: lehen asteartean, Pentekoste hirugarren egiten zen, eta 1967az geroztik, Corpus Christi aurreko igandean. "Gu hasi ginenean asteartean joaten ginen", diote bi idiazabaldarrek. Maritereren iritziz, "asteartekoa askoz intimoagoa, politagoa zen".

Iztuetaren liburutik

"Idiazabalko Erriak oroitzegarrizko denporatik irozotzen du oiturazko gallaldia bat guztiz begiragarria, nondik norakoa, eta zeren bidez daben denporaren luzetasunak atzenda daukana, bañan arreta andiarekin zintzoki ta maitaro gordetzen dabelako, inork ere bide onez eragotzi ezin leikiona. Pazkua Espiritu Santuko irugarren goizean ordubiak alderontz Batzartar jaunak beren Apaiz Meza esatekoarekin etxe bakoxtatik gizonezko bat dutela, danboliña soñulari arturik, irteten dira prozesioan San Adriango aitz zulatura, eta Segurako Erri ta Zegamakoan igarotzen da bere prozesioarekin

Idiazabalko Alkatea zigor altxatua eskuan dabela, eta aurretik danboliña soñulari San Ignazioren martxa gozoa joaz. Izendatu ditudan Erri bietan ezkillak errepikatzen diozkate prozesio oni, zeñaren etorrera gutxi gora beera izaten dan eguerdiko amai-ka orduetatik amabietarontz. Diakinde edo funzio gogoangarri au ikustera joan izandu naiz bereriaz Segurara, non berari begira egon nintzan, esan al guztien gañeko pozkida betean, Idiazabalko Erri zintzoak bere aurreragoko gurasoetatik daben oitura maitagarrria aiñ zuzenki irozotzen dabelako urteak millaka joan ta ere".



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOĀ
KOL. Zko: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA
IKASKETA TEKNIKAK
UNIBERTSITATE-MAILA



Zutik: Angel Imaz, Joxe Mari Gorrotxategi, Enrike Aranburu eta Lardizabal Txikiko Iñaki.
Pikotxean: Pello Galarraga, Berasategi eta Juantxo Urbizu.

Kintoak zama lanean

Kintoa izatea, horixe izan da San Adriango prozesioan parte hartzeko baldintza. Beraiek izaten ziren gainera, zama lana egiten zutenak: “ardo eta pattarra eramaten genuen, ogiarekin batera”, gogoratu Inaxio Mari Ezioiazak. Ardo botea, 10 litrokoa izaten omen zen. Gazteak izanagatik, nahikoa lan izaten zuten San Adrianaino iristen. Baina esaera zaharrak dioen bezala, gustuko lekuan aldarrik ez.

Mariterrek autobusa aipatu du, baina autobusaren kontua ez da betikoa. Herrira lehen autobusa iritsi zenean, Otzaurteraino autobusez joaten hasi baitziren “Lehen-lehen, oinez egiten zen bide guztia, autobusik ez zen eta”, dio Inaxio Mari Ezioiazak. Herriko lehenengo autobusa Eusebio San Sebastianena izan zen.

Idiazabaldik San Adriango bidea erraztu zaie beraz idiazabaldarrei. Otzaurteraino autobusez joan eta handik, San Adrianainoko bidea, 6 kilometroko tartea, oinez egiten dute. Hori bai, “Aldaolan, aldapa hasi aurretik, pattarra edaten zen. Gaur egun ere bai”, zehaztu dute idiazabaldarrek.

“Lehen kaminorik ere ez zen, eta dena mendiz joaten zen. Ardoa eta pattarra, karga guztia, kintoek eramaten zuten. Gaur egun, udaletxeko autoan eramaten dute karga guztia”, azpimarratu du Ezioiazak. “Garai hartan lujoa zen ardo edatea”, gaineratu du.

Gizonezkoak bakarrik prozesioan joaten zirenean, herriko neskenzat ez omen zen egun txarra izaten: “gizonak bakarrik joaten zirenean, ondo bazkaldu ondoren, maiatza baldin bazen, maiatzeko loreak izaten ziren eta soinua izaten eta nolako festa egiten zen herrian! Denak galdu ziren”, gogoratu dute.

Meza eta gosaria

San Adriango ermitan meza entzun ondoren, Sancti Spiritura joaten dira idiazabaldarrak, mokadutxo egitera. “Udaletxekoek, kazola handi bat eramaten zuten, arku-me saltan eta horrela. Sancti Spiritun berotu eta jan egiten zuten. Guk bokadiloa eramaten genuen. Guretzat mamia iristen zen. Gero artzainak ere desagertu egin ziren eta ez mami eta ezer ez. Gaur egun, udaletxeak ere otartekoak eramaten ditu besteak bezala. Norbaitek soinua jotzen zuen eta guk dantza egiten genuen”, zehaztu du Maritere Mujikak. Neska-mutilen arteko harremanak sortzeko tartea ere aprobeztatzen ote zuten jakin nahi izan dugu: “jendea txintxo-txintxo ibiltzen ginen. Belarrak idaztera joaten ginen, han ez zegoen ligamenturik. Apaiza ere eramaten genuen...”, gaineratu du idiazabaldarrak.

Oraindik ere eusten zaion ohitura baten berri ere eman digute Mariterrek eta Inaxio Marik: “San Adriana joaten denari, udalak, dirutxo bat ematen dio. Azkenekoan hiru euro izan ziren. Lehenago bale bat ematen zuten eta zortzi egunen gora-beheran gastatu behar izaten da. Zenbat izango ote zen gogoratzen egon gara, baina ez dakit, 10 pezeta esan dugu, baina gutxiago izango zen. Taber-


BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA


ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako ozi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendarak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

nan gastatzen zen”, zehaztu izate.

Idiazabalgo itzulera, bereziagoa izaten da, Zegamatik eta Seguratik barrena, bi herrietan geldialdia egiten baitute. “Ondoko herrietan itxura ona eman behar izaten da!” diote.

Zegaman eta Seguran geldialdia

Zegaman, Olaberri auzoko ermitan Zegamako alkatea zain izaten dute idiazabalduen eta aginte-makilak trukatzeko dituzte, herritik atera arte. Seguran ere berdin. Bi herrietan, hamaiketakoak ere eskaintzen diete. “Zegaman beti izan da zeozer; lehen Seguran ez zen izaten, orain bai. Zegaman, beti, gehiago.”, gogoratu dute.

Aginte-makilen trukatzeko hori “zirkulazio librerako” nolabaiteko agiritzat har liteke zenbait adituk diotenez. “Bazirudien, egintza honekin, egun oso batez Idiazabaldek Aizkorri mendiko herri-lurretaraino hedatzen zituela bere mugak”.

Maritere Mujikak urte batzuetan, Zegaman izaten zen bitxikeria bat gogoratu du: “garai hartan bazen pintore eta eskultore tipoko Atxukarro. Oso famosoa zen. Hark urtero, halako koadrotxo batzuk pintatzen zituen. Aginte-makilan sartu eta prozesioan ekartzen zen”.

Herrien arteko “pikeak” handiak izan dira eta idiazabal-

balduen kasuan ere halaxe izan da. Batez ere Idiazabal eta Segura artean. “Asko dakien pertsona bati entzun nion: lorategia dauka Segurak baina lora erramiletea oraindik ere hobea ematen du Zegamak. Neskatxo bat ateratzen da dantzaz jantzita eta lora sorta ematen dio”, adierazi du Maritere Mujikak

Inaxio Mari Ezizolazak, gertaera bat azaldu digu: “gure garaian baino lehenago bai. Gu mutikoak ginela, sakristau xahar bat bazen. Idiazabalgoak axariak gara eta behin Segurara gentozela, axari buztan landareak pote batean sartuta omen zeuzkaten segurarekin. Idiazabalgo sakristauak ostikoz potea jo eta mutikoren bati jo zion...”.

Itzulera kanpaiak

Eguerdiko 2ak aldera izaten da itzulera. “San Inazio ermitan kanpaiak jotzen hasten dira lehenengo eta gero San Migel elizako kanpandorreko kanpaiak hasten dira jotzen. “Orduan, herrian lau apaiz izaten ziren eta bikarioa kapa gorriarekin, ixiparekin, bedeinkazio batzuk eginez etortzen ziren. Tedeum bat kantatzen hasten zen bikarioa eta mundu guztia, zegoen lekuan, beluniko jartzen zen. Etxean geundenak ere kanpaiak jotzen hasten zirenean, kalera ateratzen ginen. Gero elizari buelta bat ere ematen ge-



Lehenengo gonak

Lehenengo aldiz San Adriango prozesiora joan ziren emakume taldea da argazkikoa. “Oinetako txarrak, arropa txarrak... aurreneko urtean praktarik ez eta gona estuekin joan ginen”, gogoratzen du Maritere Mujikak.

1965. urteaz geroztik, oraindik San Adriana joaten dena Maritere Mujika da. Gaur egun, San Adriango aterpetxeraino kotxez joaten da. Hori bai, Aldaolako pattar targoak egiten geldialditxoak egin ondoren.

Argazkian ateratzen direnak honakoak dira: zutik, ezkerretik eskuinera, Mari Tere Mujika, Julita Imaz eta Pepita Urteaga. Behean, Izaskun Zabala, Kontxi Urteaga eta Maripi Imaz.

nion. Fede gehixeago ere ematen diogu, elizara joan baten. Orain ez gara belun- eta ‘Arantzazuko ama’ kantatzen baina elizari buelta ematen diogu, zehaztu dute.

xetai www.xetai.net Tel.: 943 88 43 84
 Armairuak · Altzariak Oriamendi, 30 Osagarriak BEASAIN LAGO

Sanperio kalea ORDIZIA
 Ogi berria egun guztian zehar
 Bertako produktu naturalak
 Tartak enkarguz, probatu gure 'Bixigua'
 Baserriko produktuekin egindako gosariak



Iaz, Itsasondo-Orio mendi ibilaldia egin zuen itsasondoar taldea.

Itsasondo

Ekainak 2: Oriora mendiz mendi

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Itsasondotik Oriora mendi irteera egingo dute itsasondoarrek, ekainaren 2an. Goizeko 6etan abiatuko dira ibiltariak Itsasondoko plazatik. Mendiz egingo da ibilaldia. Orion, nahi duenak, dutxatu eta bazkaldu ahal izango du. Bertan parte hartu nahi duenak, martxoaren 31 baino lehen eman behar du izena, Lurdesen dendan.

Astigarreta

Maiatzak 27: Astigarretako Pazkoa jaiak

Igandean, maiatzak 27, Pazkoa jai ospatuko da Astigarretan. Jarraian duzen egitaraua prestatu dute astigarretarrek.

11:30ean: Meza Nagusia. Beasaingo San Martin parrokiako koruak abestuta.

12:30ean: Ikaztegietako dantza taldearen saioa.


14:00etan: Herri bazkaria.

Egunean zehar, Ekaitz Goikoetxea eta Xabier Zerberio bertsolarien saioak izango dira. Eguna alai bukatzeko, Mendizabal lehengusuen trikitixa hotsa izango da.

Goierri

Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketa

Ordiziako Argi Berri elkarteak Ordiziako Udalaren laguntzarekin, XVI. bertsopaper lehiaketa antolatu du. Lanak beranduenez, uztailaren 1erako aurkeztu behar dira, Ordiziako Argi Berri elkartearen (Gipuzkoa kalea, 15, behea. Sari-banaketa, irailaren 9an egingo da. Jarraian dituzue oinarriak.



Gaztetxoek maila

13 urte artekoentzat (2007an 14 betetzen ez dituztenentzat). Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertsopaper bidal ditzake. Bertsopaper bakoitzeko idatzi beharreko bertsopak gutxienez 2 eta gehienez 4 izango dira. Neurria eta doinua libreak izango dira, ez ordea gaia. 'Goierriko bertso eskolak 25 urte' izango da gaia.

Gazteen maila

14-18 urte artekoentzat (2007an gutxienez 14 eta gehienez 18 urte betetzen dituztenentzat). Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertsopaper bidal ditzake. Bertsopaper bakoitzeko idatzi beharreko bertsopak gutxienez 8 eta gehienez 12 izango dira. Gaia, neurria eta doinua bezala, librea izango da, bakoitzaren aukerakoa.

Helduen maila

1988an edo aurretik jaiotakoentzat. Parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertsopaper bidal ditzake. Bertsopaper bakoitzeko idatzi beharreko bertsopak gutxienez 8 eta gehienez 12 izango dira. Neurria eta doinua bezala, gaia librea izango da, bakoitzaren aukerakoa.

Sariak

Irabazleek, Txiki-a bana jasoko dute. Dirutan berriz, ondorengoak izango dira sariak.

Gaztetxoetan, irabazleak 200 euro jasoko ditu; 2.ak 100 euro eta 3.ak 50 euro.

Gazteetan, irabazleak 300 euro jasoko ditu; 2.ak 200 euro eta 3.ak 100 euro.

Eta helduetan, 500 euro daude zain irabazlearentzat; 400 euro bigarrenarentzat eta 300 euro hirugarrenarentzat.




kutxa

Ordizia

Toponimia beka

Ordiziako Udalak herriko Toponimia Jaso eta Finkatzeko lana egiteko beka kaleratuko du. Ekainaren 7ra arteko epea egongo da beka eskaerak eta agiriak aurkezteko. Bekaren zenbatekoa 14.000 eurokoa da eta lana egiteko epea, berri, 14 hilabetekoa.

Udaleko Euskara Zerbitzutik jakinarazi dutenez, Ordiziako Toponimia Jaso eta Finkatzeko ikerketa-bekaren helburua honakoa da: desagertu aurretik, Ordiziako tokien, baserrien, iturrien, mendien eta abarren izenak jaso eta azter-



tzea. Hori dela eta, Ordiziako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatuko du Euskaltzaindiarekin proiektuaren koordinazioaz eta zuzendaritzaz arduratzeko.

Lana bakarka zein taldean egin badaiteke ere, kide-etako batek gutxienez Euskal Filologia edo Historia ikasketak bukatuta izan beharko ditu edota azken kurtsua egiten egon beharko du; bestela, hizkuntzalari-tzan eskarmentua izan beharko du. Bestalde, bekaduna ordiziarra izatea lehentsiko da, eta, besterik ezean, goierritarra.

Oinarriak, Goierriko kultur etxeetan eskura daitezke, eta Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuan: (euskara@ordizia.org; 943 80 56 22).

Nazaret zentroa

www.nazaretzentroa.com - Aldakoenea, 36 - B° Egia
20012 DONOSTIA - Tel. 943 326666 - Fax. 943 326384

N^Z

Irakaskuntza ertain
eta lanbiderakoak
Enseñanzas medias
y profesionales

Batxilergoa

- 1 Giza eta Gizarte Zientziak
- 2 Natura eta Osasun Zientziak

*Ikasgaiak euskaraz,
erdaraz eta ingelesez
ematen dira*



Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

- 1 Administrazioa eta Finantzak
- 2 Informatika
- 3 Marketina
- 4 Nazioarteko Merkataritza
- 5 Idazkaritza

Ziklo Ertainak

- 1 Administrazio-Kudeaketa



kutxa

lankidetzako gizarte ekintza
obra social en colaboración

ETXEBIZITZAK

errentan eman

Errioxako kanping batean karabana alokatzen da. Guztiz eroso. 669706870.

Apartamentua alokatzen dut, uztailen eta abuztuko lehen hamabostaldian. 943027991.

salgai

Ataun. 60 m2, erreformatua, prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Ataunen, berritzeko etxe eder bat aukera ezberdinekin. 216.365. INMO F3 943164936 - 629417171.

Altsasun unifaliarrak salgai. 179 m² erabilgarri. Sukalde hornitua, lorategia, garaje bi-koitza eta aurrerakuntza domotikoekin. 319.000 euro. Abuzturako bukatuta. 649463289.

Beasainen, kanpo aldera ematen duen 85 m²ko etxebizitza salgai. Berogailua. Garajea. 248.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain. Erdigunean. Eraikuntza berriko apartamentua, garaje handiarekin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain. Erdigunean. 82m²ko etxebizitza. Eguzkitsua, igogailua, trasteleku handiarekin. INMO F3 943164936 -

629417171.

Idiazabal. Eraikuntza berria, 3 logelako azken etxebizitza salgai. 47.000.000. LAZKAO INMOBILIARIA.

Idiazabalen 115 m²ko pisua salgai. Erabat berritua. Berogailua eta igogailua. Garaje eta ganbarakin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Lazkao. 72 m2, hiru logela, bitzitzen jartzeko modukoa. Bista onak. Prezio ezin hobea. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Azken adosatua salgai. 140 m2. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Laister eraikuntza berriak. Apuntatu zaitetz. LAZKAO INMOBILIARIA.

Legorreta. Etxea salgai. 2 logela, egongela, bainugela, sukaldea eta balkoia. Erabat egokitua. 679193462.

Ordizia. Altamira auzoan, 60 m2-koa, 3 logela, guztiz berritua. LAZKAO INMOBILIARIA
Zegama. Etxebizitza salgai, garajearekin. 615008442

GARAJEAK

errentan eman

Beasaingo anbulatorio berriari garajea alokatzen da. 619750318.

LURSAILAK

salgai

3 hektareako mendiko lursaila salgai, Legorretan, errepi- de ondoan. 605714784. 20:00etatik aurrera deitu.

IBILGAILUAK

salgai

Renault Meganea salgai. Urtebetekoa. Aukera onean. 619592949.

BESTELAKOAK

salgai

Arraindegi, harategi etabarrretarako baskula salgai. 15 kilora arte. 615709493

Knaus karabana salgai, 2005. urtekoa. 3 ambientetako. Extra guztiekin. 620396947.

Ekipo informatiko osoa salgai. Formateatu berria (windows xp, office...) egokia internetarako eta lanerako. Prezio negoziagarria. 610348048.

Segadora saltzen da. Gutxi erabilia, prezio onean. 943886513 - 943885135.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

Egongelarako altzariak salgai. Oso merke. 943187488.




mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296
Faxa: 943 887 952
N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobek"



K. Nagusia 35 BEASAIN
☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO
☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA
☎ 943 16 00 44

GOKINDEGIA GARIPONA

LANA

eskaerak

Burdindegi lantegi batean lan egiteko pertsona bat behar da.. 943721160.

Bi haur zaintzeko, arratsalderarako pertsona euskalduna behar da. 669339887.

Beasainen neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. Arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara.-----

Langile bat behar da kotxe tailer batean, Goierrin. 670285995.

Ileapaindegi baterako esperientziadun ileapaintzailea behar da. 607815274.

eskaintzak

Lan ezberdinetarako, (umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako...) emakumea eskaintzen da. Egun osoan zehar lan egiteko aukera. 606722876.

Neska eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, garbiketa lanetarako, tabernan lan egiteko... 616889923.

Tarot kontsultak. 943766214.

ANIMALIAK

salgai

Arratoi txakur ama eta umeak salgai. Prezio paregabea. 637062203.

4 hilabeteko setter ingeles txakurra salgai. 160 eurotan. 659219237.

GALDUTAKOAK

Maiatzaren 13an, Ordiziako Erdi Aroko azokan argazki makina digitala galdu da. Txartela berreskuratzea oso garrantzitsua. 943806173 - 639207036.

Goierriarrako iragarki laburrak:

hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierriarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info



ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626

DISEINUA SUKALDEAN

DECORactiva ★
LA COCINA QUE QUIERES

REKORNE



Beasaingo Garaje Modernoa 1948. urte inguruan

AGNES IRIGOYEN
PODOLOGOA

Elkargo kide zbk 230

Astelehenetik
ostiralera:
9:30etik
18:00etara

Tel.: 943 086 925
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

AMEBI

Sagardotegia

**Erretegi bezala
zabalik**

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



reflexione



E W M E

zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argioptika.com

BVLGARI *Salvatore Ferragamo* EXTĚ ROMEO GIGLI



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Goi Mailako Tolosaldea L.H. Institutua



ESKAINTZA AKADEMIKO A

ARAUTUA

Goi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazio bidezko produkzioa.
- Eraikin eta prozesu-instalazioen mantenimendua eta jartzea.
- Metal-eraikuntza.
- Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak.
- Administrazio eta finantzak.
- Informatika-sistemen administrazioa.

Erdi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazioa.
- Soldadura eta galdaragintza.
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak.

EZ ARAUTUA

- Langileen etengabeko formakuntza. Kualifikazio profesional sistemako ikastaroak. Doan. Mekanika, soldadura, elektrizitatea, informatika, administrazioa.
- Langabetuen formakuntza.

Telefonoak: 943 651 147 (Josune)
943 650 664

E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com
Webgunea: www.tolosaldea.com

AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik 7ra

MATRIKULA EPEA

Ekainaren 29tik
uztailaren 6ra

INSTITUTU HONEN BIDEZ IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE

- laz ikasketa Teknikoak amaitu zituzten ikasleetatik %100 jadanik lanean ari dira.
- Lankidetzat hitzarmenak 150 enpresekin.
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromezu hartzen dugu.

Zure mugikorrean informazio gehiago jaso nahi baduzu
mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra (0,60 € mezua)

edo

Ikastetxean bertan doan **BLUETOOTH** baduzu